

«Urruntze eta sakabanatze politika ez da amaitu»

NAGORE ESNAOLA ETA JOSEBA EGUES
EUSKAL PRESOEN SENIDEAK

Presoen bi senidek esan dute guztiak Euskal Herrian daudenean bukatuko dela sabuespen politika; manifestazioa deitu du Sarek larunbaterako // **3**

Finantza alorrean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute

Uemak, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoak sinatu dute hitzarmena, 44 udalekin batera; euren bulegoetan euskara lehenetsiko dute hiru finantza erakundeek // **2**

Bi domina eskuratu ditu Nahia Garridok Mediterraneo Kopan

Urrea eta zilarra lortu ditu bizkar estiloko bi probatan; estreinako aldia izan da Tolosaldea IKTko igerilari batentzat nazioarte mailako txapelketa batean domina irabaztea // **6**

Unai Saralegi eta Unai Regillaga Munduko Txapelketan

Tolosarra eta amezketarra kata modalitatean lehiatuko dira judo txapelketan, hilaren 26an, Portugalen; lehen aldia dute mundukoan // **7**

Amasako Mendi Duatloia jokatu dute larunbat honetan

Euskal Herriko Zirkuiturako puntuagarria da, eta azken urteetako ibilbidea izango du; haurrentzako duatloia ere egingo dute aurten // **7**



Inmakulada ikastetxean egin zuten atzo azokaren aurkezpena, ikastolako eta udaleko ordezkariak. ENERITZ MAIZ

Boluntzariotza gazteengan sustatzeko azoka antolatu dute

Inmakulada ikastolak, Tolosako Udalarekin batera, egingo du Gazteen Boluntariotza Azoka, hilaren 27an; 750 ikaslek hartuko dute parte, eta 19 elkarteren jarduera ezagutu ahalko dute // **5**

ZUZENEAN

**Altuna III
Vs
Bengoetxea VI**

Tolosako Beotibartik
ZUZENEAN, Ataria Irratian.
Astelehenean, 17:00etatik
aurrera, Lau eta Erdiko
Txapelketako partida
erabakigarria.



Hiru finantza erakundeetako, Uemako eta udaletako ordezkariak, atzo Bergaran hitzarmena aurkezteko eginiko ekitaldian. ATARIA

Hiru finantza erakundek euskara lehenetsiko dute

Uemak, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoak, udalerri euskaldunetako 44 alkaterekin batera hitzarmena sinatu dute

Erredakzioa

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu eta aurkeztu dute Uemak, Laboral Kutxak, Kutxabankek eta Bankoak Abancak, udalerri euskaldunetako 44 alkaterekin batera. Hizkuntza irizpideak adostu dituzte Uemarekin, eta udalerri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute hiru finantza erakundeek.

2016an lehen aldiz sinatu zuten hitzarmena Kutxabankek eta Laboral Kutxak Uemarekin, eta 30 udalek egin zuten bat hitzarmenarekin. Bost urte geroago, hitzarmena eguneratu eta Bankoak ere gehitu da hitzarmenera, hiru finantza erakundeek bulegoak dituzten 44 herrietako udalekin batera.

Uemako lehendakari Iraitx Lazkanok eskerrak eman dizkie hitzarmena sinatu duten guztiei, ekimenaren garrantzia ulertzeagatik eta hitzarmenarekin bat egiteagatik: «Uemarekin eta 44 udalerri euskaldunekin hitzarmena sinatzen duten hiru finantza erakunde hauek argi dute kalitatearen funtsezko osagaia dela bezeroak harremanetarako hiz-

kuntza hautatu ahal izatea. Hori bermatzeko neurriak hartu eta berretsi dituzte hitzarmen honekin, eta bulegoak udalerri euskaldunetan dituztela ulertuta eta udalerri euskaldunek euskarari egiten dioten ekarpena aintzat hartuta, bulego horietan euskara lehenesteko konpromisoa ere hartu dute».

Laboral Kutxaren izenean, Nuria Agirre Gestio Sozialeko zuzendariak adierazi duenez, duela 23 urte Uemarekin elkarlanean hasi zirenetik asko aldatu dira erronkak zein bezeroarekiko harremanak, baina kalitateari eusteko «ezinbestekoa» zaie euskaldunei zerbitzua euskaraz eskaintzea: «Egoera eta testuingurua asko aldatu da, baina Laboral Kutxak ohiko filosofiari eutsi nahi dio hitzarmenaren bitartez, bezeroei eta, oro har, gizarteari kalitatezko zerbitzua emanez, euskaldunei zerbitzua euskaraz eskainiz».

Kutxabankek Eduardo Ruiz de Gordejuelak, berriz, 2016an sinatu zutela Uemarekin lehen aldiz hitzarmena eta ordurako bezala oraingoak ere helburu argia duela adierazi du: «Finantza entitatearekiko harremanetan euskara gehiago erabiltzea, be-

tiere bezeroaren hizkuntza esku-bideak bermaturik».

Laboral Kutxarekin eta Kutxabankek 2016an sinatutako hitzarmena eguneratzeaz gain, hirugarren finantza erakunde bat ere gehitu da orain hitzarmen berrira: Bankoak. Ana Urkiza Bankoako Euskara Koordinatzaileak adierazi du «Bankoak Abancaren-tzat «pozgarria» dela hitzarmenaren sinatzaileetako bat izatea: «Erronka berri baten aurrean aurkitzen gara. 2008. urtetik aurrera, bezero guztiei zerbitzua euskaraz eskaintzeko egiten ari garen ahaleginaz gain, hitzarmen honek beste urrats bikoitz bat ematea dakar guretzat».

Hitzarmenaren aurkezpen ekitaldian Uemak gogoratu du bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza ahula euskara dela, eta beraz, hori lehenesteko neurriak hartzea ezinbestekoa dela, «euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, beti ere, bezeroek euskaraz ahoz eta idatziz jarduteko duten esku-bidea modu argi eta garbian aintortuz».

Bergaran atzo egin zuten ekitaldian ere izan ziren hitzarmenaren parte hartzen duten Tolosaldeko udaletako ordezkariak.

HITZARMENA

Gakoak

Harremanak. Udalen eta finantza entitatearen arteko harremanak euskaraz izango dira.

Hizkuntza irizpideak. Bulegoetan euskararen presentzia bermatuko da herritarrekiko harremanetan.

Langileak. Gai izango dira edozein lan euskaraz egiteko eta langileen artean euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egingo da.

Banka elektronikoa. Euskara lehenesteko neurriak hartuko dira, webgunean zein aplikazioetan.

Hedapena. Udalek hitzarmenaren edukiaren berri emango diete herri-tarrei.

Jarraipen batzordea. Hitzarmena eraginkorra izan dadin, jarraipen batzordea osatuko dute.

Indarraldia. Lau urte iraungo du.

Eskualdeko hitzarmenak

Laboral Kutxarekin, Kutxabankek, Bankoarekin eta Uemarekin. Tolosa.

Laboral Kutxarekin, Kutxabankek eta Uemarekin. Amasa-Villabona.

Kutxabankek eta Uemarekin. Alegia, Amezketak, Anoeta, Berastegi eta Lizartza.

Arnasguneen garrantziaz ohartarazteko antzezlanaren sortzeko beka

‘Arnasa gara’ kanpainaren barruan sortu dute, eta proiektuak aurkezteko epea zabalik da, azaroaren 15era arte

Erredakzioa

Uemak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin abiarazitako *Arnasa gara* kanpainaren barruan, Arnasguneak antzerki sorkuntzarako beka sortu dute. Arnasguneen garrantzia jendarteratzeko antzezlan bat sortzea izango da bekaren helburua. Guztira 23.000 euro jasoko ditu irabazleak, eta antzezlanak 2022ko Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketetan estreinatuko dute.

Arnasa gara kanpainak datoren urtean bi ildo izango dituela zehaztu dute. Gazteei zuzendutako ekimena izango da lehenengoa. Bigarrena, berriz, arnasguneen garrantzia jendarteratzeko berariaz sortutako antzezlanaren estreinatzea eta herri-herri zabalteak izango dira. Horretarako, antzezlanaren sortzeko beka deialdia egitea erabaki dute hiru erakundeek, eta edozein antzerki talde izango du deialdira aurkezteko aukera. Proposamenak aurkezteko epea, azaroaren 15ean amaituko da, eta deialdira aurkeztutako lanak aztertu ostean epaimahaiak abenduaren 3an jakinaraziko du bekaren irabazlea zein den.

Irabazleak 23.000 euro jasoko ditu, eta apirilaren amaierarako aurkeztu beharko dio oinarritzko gidoia epaimahaiari. Era berean, Azpeitiko Dinamoa sormen guinea bizpahiru astez erabiltzeko aukera izango du antzerki taldeak, antolatzaileek ordainduta, egonaldia, sormenerako espazioa, baliabide teknikoak, lotarako lekua eta otorduak barne. Bekaren oinarriek zehazten dutenez, 23.000 euro horiekin ordaindu beharko ditu talde irabazleak atrezzoak eta eszenografiaren gastuak, besteak beste, eta antolatzaileek zehaztutako lau udalerritan antzezlanak doan eskaini beharko du. Behin antzezlanak 2022ko azaroan Azpeitiko Euskal Topaketetan aurkeztu ondoren, antolatzaileek gutxienez beste 10 emanaldi lotuko dituzte.

«Presoei lege arrunta ezartzea eskatzen dugu»

NAGORE ESNAOLA UITZI ETA JOSEBA EGUES GURRUTXAGA EUSKAL PRESOEN SENIDEAK

Espetxe politikaren aldaketa «sendotzeko» hitzordua jarri du Sarek larunbaterako; eskualdeko bi senidek salbuespen politikak sufrimendu asko eragin duela gogoratu dute

Rebeka Calvo Gonzalez Tolosa

Nagore Esnaola Uitzik (Leaburu-Txarama, 1983) eta Joseba Egues Gurrutxagak (Elduain, 1970) euskal presoek etxeratzea «indartsu» aldarrikatzeko garaia dela diote, eta horregatik dela garrantzitsua Sarek larunbaterako deitu duen manifestazioan parte hartzea.

Esnaola Uitzik Garikoitz Etxeberria Goikoetxearen bikotea da eta ondo daki sakabanaketak eta bakartzeak dituen ondorioak. Bikotea Palentziako Dueñas espetxean dago orain, etxetik 300 kilometrorra, eta 11 urte pasa ditu Sevillan, isolamenduan.

Ana Belen Egues Gurrutxaga preso elduaindarraren anaia da Joseba. Asturiasko Villabona espetxean dago egun, etxetik 400 kilometrorra, eta azken 10 urteetan Kordoban (Andaluzia) egon da, bakarrik eta bakartuta. Bizkarreko ebakuntza larria egin zioten eta irailean aita hil zitzaion, bost urtez ikusi gabe egon ondoren.

Azken hilabeteetan tantakata-tantaka presoek hurbilketei buruzko albisteak iristen ari dira, baina zein da egoera une honetan?

Nagore Esnaola Uitzik. Pauso batzuk eman dira, baina oraindik ere luzea da egin beharreko bidea, eta oztopo ugari eta garrantzitsuak aurkituko ditugula jakina da, baina guztion esfor-

tzuari esker gaingitu ahal izango ditugu.

Joseba Egues Gurrutxaga. Gaur egun, presoek gehiengo bigarren graduari dago. Hori, gerturatzeekin batera, aurrerapausotzat hartzen dugu, baina zoritxarrez, oraindik salbuespenezko legedia ezartzen zaie. Lege arrunta ezartzea eskatzen dugu beste presoek bezala.

Esnaola Uitzik. Gaur egun 197 euskal preso politiko daude. Horietatik 63 Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hiru espetxeetan: 15 Basaurin, 15 Martutenen, 2 Zaballan, 2 Zaballaren mendeko ospitaleetan eta 5 gehiago daude etxean preso. Horietatik 8 bakarrik daude hirugarren graduari. Gainerakoek, prebentziozko 2 espetxeratutako izan ezik, zigorraren hiru laurdenak gaingitu ondoren irteera baimenak izan beharko lituzkete. Ulertezina den arren, preso bat geratzen da lehen graduari.

Luzatzen ari den afera dela dio Sarek eta oraindik ere korapiloak askatu behar direla.

Egues Gurrutxaga. Giza eskubideak urratzen dituen salbuespen politika ez da amaitu. Bigarren graduari egonik, euskal preso gehienek irteera baimenak izateko legezko baldintza guztiak betetzen dituzte: zigorraren hiru laurdena beteta izatea eta jarrera egokia izatea. Hori horrela izanik ere, Euskal Herri inguruan dauden espetxeetako Tra-

tamendu Batzordeen oztopoak izaten ditugu eta eremu judizialean ere izaten ditugu arazoak, irteera baimenak ematearen aurka azaldu baitira.

Esnaola Uitzik. Eta emakume presoek hitz egiten badugu beraien baldintzak okerragoak dira. Estatu frantsesean hiru espetxetan sakabanatuta daude, Euskal Herrietik urrun.

‘Ibilian-ibilian etxerako bidean’ da manifestazioaren leloa; gertuago egonagatik ere, Euskal Herrian behar dutela aldarrikatuko duzue, beraz.

Egues Gurrutxaga. Momentu hau oso garrantzitsua da, herri-tar guztiak etxetik atera eta denok batera euskal presoek etxeratzea indartsu aldarrikatzeko garaia da eta horixe eskatu nahi diegu herritar guztiei; larunbatean denok kalera atera behar dugu eta Donostia txiki utzi behar dugu.

Esnaola Uitzik. Kaleak hartu behar ditugu berriro. Oso argi daukagu bulegoetako aldarrikapenak kalean presentzia aktiboa izatearekin uztartu behar ditugula. Ez delako ezer amaitu Andaluziako espetxeetatik hurbilago dauden espetxeetara aldatzearekin. Urruntze eta sakabanatze politika ez delako amaitu. Preso guztiak Euskal Herrian daudenean bukatuko da sakabanaketa politika.

Zer eskatzen diozue ardura dutenei, eta zer gizar-teari?

Esnaola Uitzik. Hiru hamarkada daramatzagu Espainiako eta Frantziako estatuek, gobernuek, auzitegiek eta espetxeek aplikatutako salbuespenezko politikekin eta neurriekin. Izugarria da. Indarkeria zikloa amaitu eta hamar urte pasa dira, denbora gehiegi igaro da eta bada garaia gure senideek gizar-teratzeko eta askatasunerako bidea oztopatzen duen salbuespenezko erregimena desaktibatze.

Egues Gurrutxaga. Horren ardura dutenei, denbora gehiago pasatzen ez uzteko eskatzen diegu. Gizar-teari esan behar diegu salbuespenezko espetxe politikak urte luze hauetan zuzenean eta zeharka heriotza eta sufrimendu latza eragin duela eta guzti honekin bukatzeke unea iritsi dela. Guzti honen ardura-dunengan eragin behar dugu, momentu garrantzitsu honetan aktiboki parte hartu dezaten.

Presoek senideak zarete biak, nola bizi duzue ematen ari diren aurrerapausoak?

Esnaola Uitzik. Aurrerapausoak egon dira batzuetan, baina beste batzuetan blokeoak ere egon dira.

Egues Gurrutxaga. COVID-19aren egoera baliatu dute presoek dituzten eskubideak murrizteko. Bisean bisekoak kendu

zizuten. Handik hilabete batzuetara batzuk berreskuratu zituzten, baina bisean bisekoa izan ondoren 14 egunez konfinatuta egon behar izan dute. Egoera oso zaila izan da. Batzuetan informazioz ere ez geneukan eta ez genekien nola aurkitzen ziren gure senitartekoak. Benetan gogorra izan da.

ESKUBIDE URRAKETAK AMAITZEKO

Sarek deitu du larunbateko manifestazioa; 17:00etan aterako da Donostiako Antiguako tuneletik eta Bulebarrean amaituko da, besteak beste, Gatibu taldearen emanaldia izango da. Sarek esan du Kataluniako presoek ordezkari bat egongo dela manifestazioan.

Deialdiarekin espetxe politikaren aldaketa eta eskubide urraketa guztiei irtenbidea emateko eskatu dute, egoera ezin delako gehiago luzatu Sarek hitzetan: «Bizikidetzaz lortzeko ezinbestekoa da konfrontazioz eta sufrimenduz lotutako kapitulu hau ixtea».

ETAk jardun armatua eten zuteneko hamargarren urteurrena beten honetan plataformak uste du «aukera paregabea» zabaldu dela bizikidetzan eta bakean aurrera egiteko.



ATARIA

✉ **GUTUNA****Maskararen erabilera
boluntarioa izateko
sinadura bilketa martxan**

Ikastetxez ikastetxe, eskuz esku, Bizitza plataformak osaturiko txostena banatu berri dugu, 2021-2022 ikasturtea desberdina izan behar duela eta nolabaiteko normaltasunera itzuli behar dugula eskatuz. Hezkuntza sail eta ordezkari-tzetatik inposatutako protokolo bortitz hauek pixkana lasaitu eta desagertzeko neurri zehatzak proposatu ditugu: tartean, maskararen erabilera boluntarioa izatea eta distantzia sozialik ez eragitea, adibidez.

Maskararen erabilerak geroz eta kezka handiagoa sortzen duela nabarmena da azken asteetan, eta ez da harritzekoa, haurrek helduek baino hiru aldiz oxigeno gehiago kontsumitzen baitute. Oxigeno faltak garunaren garapena eragozteaz gain, kalte itzulezinak eragiten ditu, eta hortik dator galdera: zer ondorio izango ote ditu epe luzera, gure haurrei egunero arnasa kentzeak? Eta nor izango da kalte horren erantzule?

Ikasturte berri honetan, gure agintariek ausardiaz jokatu eta beste herrialde batzuetan gertatzen ari denari erreparatzen badiote, ohartuko dira Ipar Euskal Herrian urriaren 4tik aurrera Lehen Hezkuntzako haurrek ez dutela maskara erabiltzen. Danimarka, Estonia, Finlandia, Erresuma Batua (Eskozian ezik), Hungaria, Norvegia, Belgika, Herbehereak, Luxenburgo eta Suedian ere ez da beharrezkoa maskara eskoletan. Alemanian, 12 urtetik aurrera agintzen dute.

Dagoeneko 3.200 sinadura batu ditugu, horregatik dei egin nahi dugu azken txanpa honetan *Bizitza.eus* webgunean sinatu eta urriaren 22an, bihar, Hezkuntza sail eta ordezkari-tzetara egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko, Gasteiz, Bilbo, Iruñea eta Donostian, eskoletan arnastu nahi dugula ozen esateko!

**Arantxa Lasa, Lurdes Larreta,
Garikoitz Ibarluzea,
Izaskun Zuartegi eta
Ane Maite Irazu**

Bizitza plataformaren izenean

✦ **IRAGARKI LABURRAK****Negoio esku aldaketa**

Denda. Neska edo mutil, andre edo gizon, denda polit bat nahi duenak ez galdu, ez hitz egitearren. Deitu 639 187 809 telefono zenbakira.



Atzo eguerdian aurkeztu zuten Zutani elkarteak Pintxo Tour egitasmoaren seigarren edizioa, Alondegi plazan bertan. I.S.A.

Beste herrialdeetako pintxoak, pobreziari aurre egiteko

Zutani elkarteak VI. Pintxo Tour Interkulturala eta Solidarioa antolatu du larunbaterako; Alondegian hamaika herrialdetako jakiak dastatu ahaliko dira

Irati Saizar Artola Tolosa

Tolosako Alondegi plaza hainbat herrialdeko pintxoak dastatzeko gune bilakatuko da larunbat honetan. Zutani elkarteak antolatuta, VI. Pintxo Tour Interkulturala eta Solidarioa egingo dute, 11:00etatik 14:00etara. «Pintxoak aitzakia gisa hartuta, beste herrialdeetako janaria gurera ekarri nahi dugu, bide batez baita kultura ere, eta gure artean kokatu, gure alboan bizi diren jatorri desberdineko familiak ikusarazteko, harremanak egiteko eta bizikidetzaren aldeko pausoak emateko», esan du Zutani elkarteak Mireia Rocak.

Hiru euroren truke, Alondegi-ko postuetan hamaika herrialde-tako bi pintxo eta edariak gozatzeko aukera izango da, eta nahi duenak, pintxoaren osagaiak eta

errezetak bertan eskuratu ahal izango ditu.

Besteak beste, Brasil, Palestina, Kolonbia, Honduras, Maroko, Senegal, Dominikar Errepublikak, Txina, El Salvador, Ukraina eta Euskal Herrikoek hartuko dute parte. Herrialde horietako batzuk, lehen aldiz hartuko dute parte. Aurtengo edizioan, Nikaraguako kantautore bat bertan izango da, musika joz giroa alaitzen.

Iaz ezin izan zuten aurrez aurreko jaialdirik egin. Bere ordez, *Pintxo Tour etxean* izeneko bideo bat egin zuten, 17 minutuko, eta esan dutenez, laster ikusteko aukera izango da.

POBREZIAREKIN AMAITZEKO

Zutani elkarteak ezinbestekoa ikusten du «hainbat familia eta pertsonak pairatzen duten po-

brezia eta bazterketa egoerari aurre egiteko beharra». Hori dela eta, elikagaien banaketaz gain, gizarteratze prozesua sustatzeko ekimenak bultzatzen dituzte, Pintxo Tourra kasu.

Alboan bizi ditugun herritar-ek ezagutzea da Pintxo Tourra- ren helburu nagusietako bat, Zutani-ko kideak azaldu duenez: «Ziur gaude aldamenen ditugun kultura eta ohiturak ezagutzeak elkarbizitza hobetu eta aberastu egiten duela, gizarteratze prozesuan aurrerapausoak emateaz gain».

Bestalde, jaialdiak helburu ekonomikoa ere baduela gogorazi du: «Herritarren ekarpenek berebiziko garrantzia dute. Geroz eta familia gehiago beharrean aurkitzen ditugu, eta erakundeek ematen diguten diru laguntzarekin ez da nahikoa izaten».

Larunbatean bildutako dirua, inguruan bizi diren 200 haurrentzat elikagai osasuntsuak erosteko erabiliko dute.

ZORTZI URTEZ LANEAN

2013ko martxoan, Tolosako hainbat herritar eta elkarte batu ziren Zutani-Tolosa elkarte berria sortzeko, eta Gipuzkoako elikagaien bankuarekin elkarlanean, Tolosan elikagaien banaketa antolatzea izan da Zutani-aren jardura nagusia.

Gaur egun, 170 familia laguntzen dituzte, 600 pertsona eta 175 haur, zehazki. «Ekintza gehiago antolatzeke gogoia eta asmoa dugu, betiere gure esku dagoen bitartean. Izan ere, herrian pertsona eta familia ugari dago pobrezia eta bazterketa egoeran, eta horren aurka egin nahiko genuke».

750 ikasle eta 19 elkarte batuko ditu Gazteen Boluntariotza Azokak

Inmakulada ikastolak Tolosako Udalarekin batera antolatu du azoka, eta hilaren 27an egingo dute, Izaskun auzoan; gazteen artean boluntariotza sustatzea dute helburu

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Ekimen berritzailea aurkeztu dute Tolosan: Gazteen Boluntariotza Azoka. Tolosako Udaleko Gazteria, Komunitatea eta Gobernantza eta Gizarte Zerbitzuen sailek eta Inmakulada ikastetxeak antolatu dute. Hilaren 27an, asteazkenean, egingo dute, eta 08:30ean hasi eta 13:30ak bitartean iraungo du.

Tolosako Izaskun auzoan kokatuko dituzte postu ezberdinak, eta azokaren helburu nagusia gazteen artean boluntariotza sustatzea izango du. Ana Monje Arozena Inmakulada ikastolako zuzendaria, Joseba Ormazabal Tolosako Udaleko Gazteria eta Komunitate Gobernantzako zinegotzia, Garikoitz Lekuona Komunitatea eta Gobernantzako teknikaria, Nerea Cereceda Gazteriako teknikaria eta Vanesa Juez Gizarte Zerbitzuetako gizarte langilea izan dira aurkezpenean.

Gazteek boluntariotza proiektuak ezagutzeko aukera duten guztiak bat sortuko dute azokan, «gizarte eraldatzaile eta herritar konprometituak izan daitezten». Tolosako Udalaren izenean, Ormazabalek «eskerrak» eman dizkio Inmakulada ikastolari ekimenaren prestatzeari. «Oso ekimen interesgarria da, eta oso lerrokatuta dago udala azken urteetan egiten ari den ibilbidearekin», azaldu du Joseba Ormazabal Gazteria eta Komunitate Gobernantzako zinegotziak.

«Ez dut esango gazteak aktiboak eta konprometituak ez direnik, baina hori ereiten eta lantzen saiatu behar gara», gaineratu du Ormazabalek. Ikastetxetik lankidetzaz luzatuz udalari proposamena luzatu zietenean ez zuten zalantzarik izan bat egiteko.

Tolosako gazteez gain, inguruko herrietakoek ere bat egingo dute azokan, eta antolatzaileek ez dute zalantzarik: «Gazte asko gerturatuko dira boluntarioen azoka honetara». Parte hartze handia espero dute. «750 ikasle baino gehiagok parte hartuko



Ikastolako eta Tolosako Udaleko ordezkariak Inmakulada ikastolan egin zuten azokaren aurkezpena, atzo. E. MAIZ

dute», esan du Inmakulada Ikastolako Ana Monje zuzendariak. «Hori ez da garrantzitsua, baizik eta ikastetxe guztiak egongo direla, eta bertako ikasle guztiek parte hartuko dutela», gaineratu du. «Tolosako eta Tolosaldeko gazteak boluntariotza azokako helburuekin bat egiten dute», esan du Monjek.

Egunean bertan ikusiko dute parte hartzea nolakoa izango den, eta azokak emango duen emaitza; «baina, nik uste harro egoteko moduko datuak ditugula momentu honetan gure artean».

ASKOTARIKO ERAKUNDEAK

Gazteen Boluntariotza Azokan parte hartuko duten erakundetan jarri nahi izan dute azpimarra. Beste datu garrantzitsua direlakoan daude, eta askotariko parte hartzea izango dute erakundeen aldetik ere.

Jatorrin Al-Nahda, Abegi, Atzegi, Adinkide, Eskola Laguntza, Cear, Gizalde, Gurutze Go-

rria, DYA, AECC, Goyeneche, Itaka-Eskolapios, Gautena, Zutani, Nagusilan, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa, Aspace, Asebier eta Eusko Jaurlari-

**«Gizartearekin
erronka handiak
ditugu, eta ikasleak
konprometitu egin
behar ditugu»**

ANA MONJE AROZENA
INMAKULADA IKASTOLA

**«Ez dut esango gazteak
aktiboak eta
konprometituak ez
direnik, baina hori
ereiten eta lantzen
saiatu behar gara»**

JOSEBA ORMAZABAL
TOLOSako ZINEGOTZIA

tzako ekintzailatza lantzeko Urrats bat izango dira azokan parte hartuko duten erakundeak eta elkarteak. Bakoitzak gertatzen diren gazteei beren proiektuak eta egitekoak aurkezteko aukera izango du.

tuak eta egitekoak aurkezteko aukera izango du.

«Ikasle asko eta erakunde asko elkartuko gara, eta bai udala eta baita gu ere helburu berarekin bat eginda», nabarmendu du Monjek. Ikastetxe guztiek gizartearekin konpromisoa izan behar dutela uste du ikastolako zuzendariak, eta hori ikasleekin ere landu egin behar dutela.

Ikasleei gizartearekin konprometitzen erakutsi nahi diete, eta ekintzetan parte hartu behar dutela erakutsi. «Tolosa eta tolosarrak beti izan gara aktiboak, konprometituak, solidarioak eta elkar laguntzekoak. Balio horiek sustatzeko eta Tolosako elkartegintza sarea indartzen eta ehuntzen jarraitzeko asmoz antolatu da gazteen boluntariotza azoka», azpimarratu du Ormazabalek.

«Beraien ikasketa prozesuan eta garapen pertsonalean ekintza guzti hauek asko elikatzen dute pertsona bera», adierazi du Monjek; honelako ekimenak elkarrekin gero eta gehiago bultzatu behar ditugu».

AZOKA

Urriak 27, asteazkena

08:30-13:30. Tolosako Izaskun auzoan egingo dute azoka. Inmakulada ikastolak eta udalak elkarlanean antolatuta. Ikastetxe guztietako 750 ikasle baino gehiagok parte hartuko dute, eta 19 erakunderen ordezkari-tza izango da: Jatorrin Al-Nahda, Abegi, Atzegi, Adinkide, Eskola Laguntza, Cear, Gizalde, Gurutze Gorria, DYA, AECC, Goyeneche, Itaka-Eskolapios, Gautena, Zutani, Nagusilan, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa, Aspace, Asebier eta Eusko Jaurlaritzako ekintzailatza lantzeko Urrats bat.

tu behar ditugu». «Gizartearekin erronka handiak ditugu, eta lan handia dugu egiteko. Ikasleak konprometitu egin behar ditugu, baina horretarako ikasi egin behar dute, eta ea baliagarriak diren ekimen guzti hauek», adierazi du itxaropentsu Inmakuladako zuzendariak.

Itxaropena galdu gabe



Aulkitik

Mireia Barriola

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Talde bezala edozertarako gai garela demostratzen ari gara. Buruan genuen oso partida gogorra izango genuela, sailkapen aldetik gure aurretik doazelako eta aspalditik ezagutzen dugun talde indartsu bat delako.

Hasieratik indartsu hasi ginen, gogotsu, dakigun bezala jokatzu aurretik jarri nahian. Bi talderen partetik aukerak eduki arren, bukaera arte mantendu genuen irabazteko itxaropena, eta nahiz eta oraindik gauza asko eduki hobetzeko, Arratiaren aurka 0-0 ko emaitza lortzea aurre-rapauso bat dela iruditzen zait.

BILLABONA FKE Arratzain futbol zelaia	
OHOREZKO INFANTIL MAILA Larunbata 23, 11:00etan	1. JUBENIL MAILA Larunbata 23, 15:30ean
BILLABONA F.K.E. EUSKALDUNA S.D.	BILLABONA F.K.E. IDIAZABAL K.E.
PREFERENTE MAILA Larunbata 23, 17:45ean	INFANTIL NESKAK MAILA Igandea 24, 10:30ean
BILLABONA F.K.E. URNIETA K.E.	BILLABONA F.K.E. TOLOSA C.F.
Billabona Fke	

Nahia Garridok bi domina lortu ditu Mediterraneoko Kopan

Lehen aldiz lortu du Tolosaldea IKTko igerilari batek nazioarteko txapelketa batean domina bat; urrea eta zilarra lortu ditu bizkar estiloko bi probatan

Imanol Garcia Landa

Tolosaldea IKT taldeko Nahia Garrido igerilariak bi domina lortu ditu asteburuan Belgraden jokatu den Mediterraneoko Kopan, 14 urteko mailan. Urrezkoa 100 metro bizkar proban lortu du eta zilarrezkoa 200 metro bizkar proban. Nazioarte mailan lehen aldiz parte hartu du taldeko igerilari batek eta gainera dominak lortu ditu.

Tolosaldea IKTko Joseba Zubeldia entrenatzailea ere Belgraden izan zen, Espainiako selekzioeko entrenatzaile laguntzaile moduan. Esperientzia «ona eta positiboa» izan dela azaldu du: «Beste maila bateko txapelketa bat da, atzerrian. Ez gaude ohituta Espainiako selekzioarekin joatera, eta esperientzia aberasgarria izan da, eta garrantzitsua ere, pauso bat aurrera ematea izan delako bai Nahia eta niretzat, eta baita Tolosaldea IKT-trentzat ere».

Aurkarien berri gehiegi ez zutela azaldu du: «Ez genekien beste selekzioetatik ze igerilari izango ziren, ezta beraien maila ere, eta parte hartzaileen zerrenda bi egun lehenago atera zen», zehaztu du Zubeldiak.

Ez zituzten espero emaitza horiek lortzea. «Nahia oso ondo lehiatu zen eta dominak lortzeko bere aukerak baliatu zituen», esan du entrenatzaileak. «Asko ikasten ari den seinale da hori. Kontuan izan behar da hamalau



Nahia Garrido eta Joseba Zubeldia, Meditarreneoko Kopan. ATARIA

urte dituztela eta asko dutela oraindik ikasteko».

Tolosaldea IKT-trentzat lorpen berezia izan da Garridok eskuratutakoa. Kontuan izan behar da Hego Euskal Herriko inork ez duela txapelketa horretan dominarik lortu, eta are gutxiago urrezkoa. «Alde horretatik talde bezala ere pauso bat aurrera goazela esan daiteke, eta ea bide horretatik jarraitzen dugun», esan du Zubeldiak.

Emaitzez gain, garrantzi berezia ematen dio Zubeldiak horrelako txapelketa batean parte hartzeak suposatzen duen esperientziari. «Atzerriera ateratzea bakarrik berezia izan zen. Grezian geldialdia egin genuen, Serbiara iritsi ginen, eta hainbeste kontrol pasa behar dira orain... Hori bakarrik ikasgai bat izan da», esan du Zubeldiak, eta ez dela bakarrik lehiaketa bera kon-

tuan hartu behar, txapelketa batean parte hartzeari bere osotasunean begiratu behar zaiola gaineratu du.

HAMALAU URTEKOEN MARKA

Garridoren aurkari zuzena azkean Espainiako selekzioarekin zegoen Estella Llum Tonrath izan zen. Hain justu, Garrido bigarren izan zen proban lehen postuan sailkatu zen Tonrath, eta postua aldatu zuten 100 metrokoan. «Laguna da eta aldi berean aurkaria lehiatzerakoan», azaldu du Zubeldiak. «Batak bestearekin mesede egiten dio hobetzeko garaian, eta horrela gertatzen ari da».

Bere marka ez zuen hobetu ahal izan 200 metroko proban Garridok, baina 100 metrokoan hamalau urteko mailan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko bere marka hobetu zuen, 1.03.63ko

denbora ezarritik. «Maila altuko marka da, eta proba bera ez zuen egin infantil mailan egin ohi den moduan, helduek egiten duten moduan egin zuen», esan du Zubeldiak. «Gauza asko ikasita ditu, beste infantil askok ez dakitena. Maila handiko proba egin zuen, egia esan». Kontuan hartzekoa da lortutako marka orain arteko bigarren onena dela absolutu mailan.

Zubeldiarentzat ere berezia izan zen Mediterraneoko Kopa, lehen nazioarteko txapelketa izan baitzen berarentzat ere entrenatzaile moduan. Gainera, Garridok eta Tonrathek berarekin hitz egin zuten 200 metroko probaren inguruan aholkuak jasotzeko. 100 metrokoan, berriz, Garrido izan zen Zubeldiaren aholkuak eskatu zituen bakarra. «Nik ere nire urduritasunak izan nituen, eta poztu nintzen Nahiak urrea lortzerakoan», esan du entrenatzaileak.

Aurrera begira jarrita, hurrengo txapelketa Garridorentzat zein Tolosaldea IKTko kideentzat absolutu mailako Espainiako Txapelketa izango da. Mallorcan (Herrialde Katalanak) egingo da, azaroaren 25 eta 28 bitartean. «Aurten hamar igerilari daude gutxieneko markarekin, inoiz baino gehiago», esan du Zubeldiak, eta nabarmendu du lehen aldiz bai mutiletan zein nesketan erreleboetan parte hartzeko gutxieneko markak lortu dituztela.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu


Hamar onenen artean sartzeko asmoz

Unai Saralegi eta Unai Regillaga judokek lehen aldiz parte hartuko dute kata modalitateko Munduko Txapelketan; lehia datorren astean izango da, Lisboan

Imanol Garcia Landa

Europako Txapelketan bigarren egin ondoren, oraingoan Munduko Txapelketan parte hartuko dute Unai Saralegi tolosarrak eta Unai Saralegi amezketarrak. Hilaren 26an, datorren asteartean, egingo dute kata modalitateko judo txapelketa, Lisboan. «Gure modalitatean Olinpiar Jokorik ez dagoenez, guretzako dagoen txapelketa garrantzitsuen da», esan du Saralegik. «Urduritasun puntu batekin goaz, guretzako beste pauso bat delako, baina ondo entrenatu dugu, eta kontentu gaude orain arte egin dugun prestaketarekin».

Bi judokentzako Munduko Txapelketan parte hartzen duten lehen aldia izango da. Dagoneko prestaketaren zati nagusia egin da, eta azken egun hauetan «burua ahal den egokien mantendu, urduritasunari eutsiz», ari direla esan du Regillagak. «Azkeneko xehetasunak zehaztea tokatzen da. Baina lana egin dago, eta orain txapelke-



Unai Regillaga eta Unai Saralegi, Tolosako Usabal kiroldegian. I.G.L.

tan bertan zentratzea tokatzen da. Askoz gehiago ezin da egin».

Guztira 26 bikote lehiatuko dira. Europako Txapelketa pasazela pentsatu behar dela esan du Saralegik: «Hor emaitza ona lortu genuen, baina hemen beti lanean jarraitu behar da eta aurkariak ere horixe egiten dute. Mun-

duko Txapelketa honetan inoiz egon den parte hartzaile kopuru handiena izango da eta zaila izango da goiko postuetara gerturatzea, baina gure ustez ondo egin ditugu azken entrenamendu saioak, orain dela aste pare bat Frantziako selekzioarekin egon ginen entrenatzen eta

nahiko itxura ona eman genuen. Ilusioarekin goaz eta ea lehen hamar postuen barruan sartzeko aukera dugun. Urteko helburua bete dugu, eta hori lortzea helburua biderkatzea litzateke».

Regillagarentzat lehen parte hartzea izan zen Europako Txapelketan eta bigarren postua lor-

tzea «amets bat betetzea» izan zen berarentzat. «Esan zigutenean Munduko Txapelketara joango ginela, izugarria izan zen, ezin sinetsita nengoen. Orain saiatu behar gara gure onena ematen eta ea lehen hamarretan sartzen garen».

Europako selekzioen artean aurkari nagusiak Italia, Alemania eta Frantzia izan ohi dira. Bestalde, arte martzialetan Asiako herrialde guztiek tradizioa dute eta indartsuak dira, judoa sortu zen Japonia buru izanik. Horrez gain, Kolonbia eta Brasil kontuan hartzekoak dira, aurreko Munduko Txapelketan dominak lortu zituzten judokak dituztelako. Aurkari indartsu asko izango dituzte, beraz.

Europako Txapelketa bukatu ondoren, berez ez zuten espero Mundukora joango zirela. Espainiako selekzioak aukeraketa egin zuen eta irailaren hasieran jakin zuten hautatuak izan zirela. Txapelketa astean zehar izanik, Saralegik lanean eta Regillagak unibertsitatean baimenak eskatu behar izan zituzte. Autoz egingo dute bidaia, eta egin beharreko lana erreparasatzeko baliatuko dute.

Mendi duatloia Amasan, ikusi eta parte hartzekoa

Larunbat arratsaldean egingo dute Euskal Herriko Zirkuiturako puntuagarria den Amasako Mendi Duatloia

I. Garcia Landa
Amasa-Villabona

Iaz azken unean bertan behera utzi behar izan zuten, baina aurten egingo dute Amasako Mendi Duatloia. Larunbat honetan izango da, hilaren 23an, eta 16:00etan hasiko da. «Etxeko proba da eta gogoz prestatu dugu», esan du Eneko Gurrutxaga amasarrak, antolakuntzako kide zein parte hartzaileak.

Azken urteotako zirkuitu bera izango da. Lehenengo zatian 4,18 kilometro egingo dituzte korrika, bigarren zatian mendi

bizikletarekin 17,79 kilometro, eta azkenik korrika beste 2,43 kilometro egingo dituzte. Amasako herrigunetik hainbatetan pasako dira parte hartzaileak. «Beti izan da gertuko proba bat, jendeak ikusi eta animoak emateko. Nahiko saltsa egoten da, eta bada eremu bat, bereziena dena, bertatik korrika bi aldiz eta bizikletaz ere bi aldiz pasatzen gara. Beraz, ikusteko nahiko erraza da proba», nabarmendu du Gurrutxagak. Proban izena eman nahi duenak *Kirolprobak.com* webgunearen bitartez egin dezake. Gehienezko kopu-



Orain bi urte egin zen azkeneko aldiz Amasako Mendi Duatloia. IRATISAIZAR

rua 150 parte hartzailekoa da, eta Internet bidez ez bada betetzen, egunean bertan eman ahalko da, proba hasi baino ordubete lehenago.

Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituarentzat puntuagarria da Amasako proba. Ikusteko dago zeinek ematen duen izena proban, eta Gurrutxagak espero du emakumezkoetan gutxienez podiuma osatzeko moduan egotea, orain arteko lau probetatik

bitan emakume bakarrak parte hartu baitu. Gizonezkoetan Gurrutxagak bere aukerak izatea espero du, etxean lehiatzeak ematen duen motibazio gehigarria aprobetxatuz. «Aurten hiru itzuli eman dizkiot zirkuituari eta hirugarrenenako konturatu nintzen barneratuta dudala. Ez dakit abantaila handia izango den niretzat, baina ibilbidea behintzat ez dut kontra izango», esan du. Parte hartzen badute, Paul

Bereziartua eta Iñaki Isasi ikusten ditu garaipena lortzeko faboritoen artean. Isasi bera dago zirkuituko sailkapenaren buru, bigarren Josu Urrestarazu doa, hirugarrena da Bereziartua eta Gurrutxaga laugarren postuan dago kokatuta.

HAURRENTZAKO PROBA

Aurten berrikuntza haurrentzako mendi duatloia izango da. 13 urtez azpikoek parte hartuko dute eta 12:30ean hasiko da. Guztira bost maila izango dira eta egunean bertan eman ahalko da izena, 11:30etik aurrera. Ez da lehiarik izango, eta beraz sailkapenik gabekoa izango da. «Helburua festa giroa jartzea da eta haurrei mendi duatloia zer den erakustea», esan du Gurrutxagak. Parte hartzaile bakoitzarentzat saria izango dela gaineratu du. «Nahiko zaila da haurrentzako zer distantzia jartzea komeni den asmatzea. Saiatu gara lan horretan, eta agian motzegiak jarri ditugu, baina probatu nahi genuen, eta ikusiko dugu gerora begira zerbait aldatu behar den», zehaztu du Gurrutxagak.



OSTEGUNA, 2021EKO URRIAK 21
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 21

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Lurtaro elkartearen aurkezpena, Mikelasagastin, 18:30ean.
Larraul. Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurkezteko eta osasuna irabazteko, kultur etxean, 18:30ean.
Irura. Bidea Ipar liburuaren aurkezpena, eskolan, 19:00etan.
Baliarrain. Mendebaldeko Sahara: Zer gertatu da? hitzaldia, erabilera anitzeko gelan, 19:00etan.
Tolosa. Paco Rocaren Zimurrak, Galtzaundiren irakurle taldean, 19:00etan, kultur etxean.

Zinema

Amasa-Villabona. Suharragure arbasoen ondarea, Gurean, 19:30ean.
Tolosa. La escopeta nacional filma, 19:00etan, Leidorren.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina.
15:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebraidea. Magazina.
20:00. Uzturre blues. Blues musika, Iñigo Martinekin.

28 KANALA

GAUR

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Ayvee)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Udazkeneko eguraldi fresko eta triste izango dugu. Egun osoan zerua estalita mantenduko da eta hodei hauek euri pixka bat utziko dute egunean zehar. Zaparradak orokorrean ahulak izango dira. Haizeak ipar-mendebaldetik zakar joko du eta tenperaturak nabarmen egingo du behera, 17-18 graduan joko duenlarik goia.

Bihar. Hobetzeko joera izango du eguraldiak. Goizean zerua hodeitsu egongo da eta euri pixka bat izango dugu. Egurditik aurrera atertu eta ostarreak zabaltzen hasiko zaizkigu, egun amaierarako zerua nahiko garbi gertuko delarik. Haizeak goizean iparraldetik joko du eta arratsaldean ipar-ekialdetik. Tenperatura jaitsi eta ez da 14-16 gradutik pasako. Gauean asko hoztuko du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Lurzati gehiago izango ditu baratze parkeak

35 lurzati ditu egun Anoetako baratze parkeak; herritarren eskaerak aintzat hartuta, lur eremu berriak egokituko dituzte



35 lurzati ditu Anoetako baratze parkeak eta guztiek dute erabiltzailea. ATARIA

Erredakzioa Anoeta

Gaur egun 35 lurzati osatzen dute Anoetako baratze parkea eta guztiek dute erabiltzaile bat. Anoetako Udaletik esan duteenez, herritar gehiagok eskaera egin dute lurzati bat izateko eta, egun, itxaron zerrendan daude. Bada, eskaera horiek asetzeko udalak baratze parkea handitu eta lur eremu berriak egokituko ditu.

Udaletik azaldu dute baratze parkeak oso ondo funtzionatzen

duela. «Erabiltzaileak oso gustura daude, lurrarekin harreman zuzena garatzeko balio du, eta herritarrek ere elkartasun eta lankidetzara sare bat osatu dute haien artean», esan du Pello Estanga alkateak. Gogobeteta azaldu da egitasmoak duen jardunarekin zein norabidearekin, eta gogora ekarri ditu ekimenaren zenbait helburu: «besteak beste, garaiko produktuen sentsibilizazioa, nekazaritzaren gertutzeara, aisialdi aktiboa sustatzea eta ingurumenarekin harreman

zuzena garatzea bilatzen dugu proiektuarekin».

Autokontsumoa eta baratze-zaintza ekologikoa dira herriko baratze parkearen oinarriak. Kutzaren ekoguneko baratze parke sarearen barruan dago Anoetako ere, eta edozein unetan egin daiteke izen-ematea edo eskaera lur eremu bat izateko.

Herriko baratze-parkean aukera dago lurra lantzeko tresneria partekatzeko; horrez gain, denetarik ikastaroak eta eskaintza bereziak ere antolatzen dituzte.

Agregatzaile finantzarioa Aplikazioaren jakinarazpenak

LK Pay Txata

Online hipoteka

Meet Bideokonferentzia gestorearekin

— Yolanda Munin Freire
Bulego-gestorea, Zornotza

Erreminta digital guztiak ditugu zuretzat.

ZOZKETA BEREZIA

Zozketan parte hartzeko epea 2021eko urriaren 14tik 24ra, **943 655 695 telefonoan edo ataria.eus-en.**



GoPro Hero 9 Black-aren ezaugarriak:

5K-ko bideoa eta 20 MP-eko argazkiak, egonkortze aurreratua, urperagarria (10 metrora), bateriak % 30 gehiagoko iraupena, lente ateragarria, ...



Bada beste modu bat